


OÑATI
dabilen herria



ALKATE-DEKRETUA

Nik, Iñigo Ruiz Barronek, Oñatiko Alkate ordea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Erregelamenduak eman dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Arkitektoaren (A1) lanposturako bitarteko funtzionario bat kontratatzea (2026ALK00007)

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

"Espediente-zk.:..... 2026ALK00007

Espedientearen helbidea:.. OÑATI

Gaia:..... Arkitektoaren (A1) lanposturako bitarteko funtzionario bat LANBIDE bitartez kontratatzeko BEHIN-BEHINEKO onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea

Interesduna:..... Oñatiko Udala

Gertakariak:

Oñatiko Udaleko 2026ko abuztuaren 5eko Alkate-dekretu bitartez (1522 zkia.) arkitektoaren lanposturako bitarteko funtzionario bat LANBIDE bitartez betetzeko oinarriak argitaratu ziren LANBIDEn.

Izen-emate epea amaituta, behin-behineko onartu eta baztertuen eta merezimenduen zerrendak argitaratu behar dira.

DEIALDIA: ARKITEKTOA (2026ALK00007) **Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda**

Onartuen zerrenda:

<i>Izen-abizenak</i> <i>Nombres y apellidos</i>
ANE ALVAREZ MIMENTZA
EGOI BARDOT OBREGOZO
ELISA IZTUETA EIZMENDI
JAKINDA GABIKAGOJEASKOA GARRO
MAIDER QUINTANILLA LAGO
SAIOA ZUAZUBISKAR ARDANZA

Baztertutakoak*:

<i>Izen-abizenak</i> <i>Nombres y apellidos</i>
ALAZNE ONA ORTIZ DE ZARATE
AMAIA EGUIA ERCILLA





OÑATI
dabilen herria

ANA ARAMBURU IBARLUCEA
ENERITZ ARRONDO BARANDIARAN
IÑAKI ETXEBERRIA ITURBE
IÑIGO GALDEANO PEREZ
IÑIGO URIBARRI PARADA
ITZIAR ARANBERRI AGIRREGOMEZKORTA
JESSICA VALENCIA CACERES
JON EGUIZURAIN TREJO
JOSEBA OTEIZA ARABAOLAZA
MARIA GEMMA OROBENGOA HERNANDEZ
URKO SAEZ DE ASTEASU INIGUEZ DE HEREDIA
UXUE PEREZ GOMEZ
XABIER ITURRIZA AIZPURUA

(*) Goiko azken taula honetan zerrendatutako hautagaitza guztiei dagokienez, baztertuak izatearen arrazoia da deialdiaren oinarrietako 4. puntuko d atalean beharrezko eta ezinbesteko prestaketa modura jasotako baldintza ez egiaztatzea.

Hain justu, honakoa xedatzen du puntu horrek:

"Hizkuntza-eskakizuna: euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna (C2). Maila honetako hautagairik ez balego, 3. HE duten hautagaiak ere onartuko lirateke, bigarren mailan edo ordezkoko gisa."

Beraz, ezarritako ezinbesteko hizkuntza-eskakizuna duten hautagaien behin betiko zerrendaren hurrenkeran lanpostua esleitzea lortuko ez balitz, prozesua ez da bukatuko eta hemen baztertu modura jasotako hautagaien merezimenduen eta lanbide-esperientziaren balorazioa egingo da, eta horien arteko izendapena egin gero.

DEIALDIA: ARKITEKTOA (2026ALK00007)
Merezimenduen behin-behineko zerrenda

Behin-behineko merezimenduen balorazioa, hurrengoa da:

	Lan-esperientzia (gehienez 30 puntu)	Ikastaroak eta titulazioa (gehienez 15 puntu)	GUZTIRA
ANE ALVAREZ MIMENTZA	25,95	7	32,95
SAIOA ZUAZUBISKAR ARDANZA	28,4	0	28,4
JAKINDA GABIKAGOJEASKOA GARRO	16,25	2,75	19
EGOI BARDOT OBREGOZO	13,5	2,75	16,25
MAIDER QUINTANILLA LAGO	9,9	3	12,9
ELISA IZTUETA EIZMENDI	8,85	0	8,85

Proposamena:

Arkitektoaren lanpostua bitarteko funtzionario modura eta karrerako funtzionario batek bete bitartean hornitzeko, behin-behineko onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea eta 3 egun balioduneko epea ematea erreklamazioak jartzeko erabaki hau Oñatiko Udaleko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.





OÑATI
dabilen herria

Adierazitako epe horren barruan erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, zerrenda hau behin betikotzat jotzea automatikoki."

Horregatik guztiagatik, teknikariaren balorazioa eta proposamena ikusirik, nik, Iñigo Ruiz Barronek, Oñatiko Alkate ordea naizen honek, **erabaki dut**:

Lehenengoa. Arkitektoaren (A1) bitarteko funtzionarioaren lanpostua LANBIDE bitartez betetzeko BEHIN-BEHINEKO onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea.


Bigarrena. Ezinbesteko baldintza modura jarri zen hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten izangaiak soilik onartzea urrats honetan. Behar izanez gero, aipatu hizkuntza-eskakizuna ez duten gainerakoetara hedatzea hautapena (3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenengana, alegia). Beraz, hemen baztertu modura kontsideratu izana termino horietan ulertu beharra dagoela argitzea.

Hirugarrena. Erabakia Oñatiko Udalaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena. 3 egun balioduneko epea ematea erreklamazioak jartzeko erabaki hau Oñatiko Udaleko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Gainerakoan, besterik gabe, zerrenda hau behin betikotzat jotzea eta izendapenari ekitea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan, sinatu dut,

Oñatin, 2026ko irailaren 1ean

 **Alkate ordea**

OÑATIKO UDALA
Iñigo Ruiz Barron

